



**2016KO ABUZTUAREN 30EKO**  
**EZOHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abuztuaren hogeita hamarrean, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Iñaki Estenso-ro Sarasola, Jabier Arrasate Aierbe, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran eta Urtzi Iruin Arruti.

Bertaratu ez diren zinegotziak: Ane Irastortza Izagirre, Begoña Bueno Barranco, Amagoia Naldaiz Mingo, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia eta Leire Mendia Arana.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- 2016KO IRAILAREN 25EKO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2016ko irailaren 25ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa, horretarako prestatutako informatika programa baten bidez egiten da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartzen dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako CONOCE programatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

**II.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO**  
**UDALA**